

ataria

2020-03-13 • 1.206. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Paladaz palada, Oriatik itsasoraino



AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola **3**

Elkarrizketa Ane Ayerbe **4-5**

Erreportajea Farmazien lana **6-7**

Asteko Gaia

Tolosaldeko Arraun Kluba **10-17**

Xiberutik Aitor Atxega **19**

Sapere Aude Ane Amundarain **19**

Iritzia Alex Padilla **20**

Iritzia Olatz Peñagarikano **21**

Begirada grafikoa Xabier Artola **22**

Agenda **24-25**

Vicente Ameztoui **26-29**



Azaleko irudia
Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

bai erabiltzaile eta
lana eskatzen

3ikam 3. irratia

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Bizitza bizigarriak denontzat



**ANE URKOLA
AGIRREZABALA**
KAZETARIA

Ba astebete pasa da Martxoaren 8an Euskal Herriko kaleak bete genituenetik, eta bertan bildu ginen milaka eta milaka emakumeren indarra barnean daramagu oraindik.

Zuriketa morea salatzen jarraitu beharra daukagu oraindik, ordea; izan ere, Martxoaren 8aren aitzakian, alderdi politikoetako ordezkariak emakumeen eta gizonen parekidetasunaren aldeko adierazpenak egiten ikusi ditugu lotsa gutxirekin. Mugimendu feministari Gasteizko balkoia erabiltzea ukatu dioten berberak ikusi ditugu Martxoaren 8ko manifestazioan hauteskunde kanpainarako argazkia ateratzen, baita zaharren egoitzetako langileen edota Euskal Herriko Unibertsitateko garbitzaileen lan baldintzak duintzeko neurririk hartzen ez duten politikariak; hondamendi ekologiko zein gerra suntsitzaileak bultzatzen dituzten berberak.

Euskal Herriko mugimendu feministak azken urteetan erabili duen lelo nagusia da *Bizitzak erdigunera*, eta sinplea dirudien arren, sakontasun politiko handiko ideia da. Bizitzak erdigunean jartzea baita, besteak beste, Tolosalderako ospitale publikoa aldarrikatzea, Atzerriartasun Legea bertan behera utz dezatela eskatzea edota gure gorputz eta lurraldeen jabe izan nahi dugula oihukatzea.

Aldarrikapen horiek guztiak jarri genituen erdigunean Martxoaren 8an, eta horretarako, ezinbestekoa da sistema errotik aldatzea. Argi dago norabidea okerra dela eta hori erakusten duten datuak sobera ditugu. Bat aipatzearren, ikerlan interesgarria da *EAEko demokrazia patriarkala*. Ikerlan horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko merkantilizazio eta familiarizazio tasak aztertu dituzte. EAEn 4tik 4ko merkantilizazio tasa dago, eta horrek negozioa egiteko ahalmena

ematen die enpresa pribatuei. Ondorioz, zaintza lanen zama emakume zaurgarrien gain uzten da, etxeko langile figura betetzen duten emakume arrazializatuen gain, kasu gehienetan. Horren erakusgarri beste datu bat: Europa mailan, Hego Euskal Herriko lurraldeak dira etxeko langile gehien dauden eremuak. Ezin uka euskal oasia arrakalaz beteta dagoela.

EAEn 4tik 4ko merkantilizazio tasa dago, eta horrek negozioa egiteko ahalmena ematen die enpresa pribatuei. Ondorioz, zaintza lanen zama emakume zaurgarrien gain uzten da, etxeko langile figura betetzen duten emakume arrazializatuen gain, kasu gehienetan

Bizitzak erdigunean jartzea da, beraz, zerbitzu publiko eta kalitatezkoak eskatzea; kalitatezko enplegu eta zaintza bermatuko duen sistema publikoa. Bizitza bizigarriak aldarrikatzen jarraitzea dagokigu, eta horretarako ezinbestekoa da feministon autoantolakuntza. Martxoaren 7an bidea urratzen hasi ginen Anoetan, eta eskualdeko mugimendu feminista josten hasi ginen. Jarrai dezagun antolatzen eta feminismoz sareten; ez zaigu borrokarako arrazoirik falta.

«Prebentzio neurri guztiak betetzen ari dira txinatarrak»

ANE AYERBE

TXINAN BIZI DEN TOLOSARRA

Gizartea Koronabirusaz jabetzen hasi zenean Txinan zegoen Ane Ayerbe tolosarra. Bertan bizi da, baina jaioterrian elkarrizketatu dugu, berrogeialdian egon ondoren, bertan babeslekua bilatu baitu. Asiako herrialdera itzuliko da, lanean hasteko.

Josu Artutxa Dorronsoro

Duela bi urte pasatxo, Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradua amaitu berritan, joan zen Ane Ayerbe (Tolosa, 1995) Txinako Hangzhoun hirira. Txinera ikasten ari zen, eta aldizkari batean lanean hastekoa zen orain. Otsaila, ordea, ez du berehalakoan ahaztuko. Koronabirusaren arriskua zela eta, bi astez berrogeialdian egon zen bertan, eta Tolosara itzuli da hilabete pasatxo egiteko. Segituan itzuliko da Txinara, eta seguru da, jada arrisku handiena igaro delako.

Nola izan zenuen birusaren berri, eta zein izan zen zure lehen erreakzioa?

Mezuen bidez heldu zitzaidan abisua mugikorrera, leku askotik. Horrez gain, unibertsitatean, Gobernuak bidalitako txostenak ere pasa zizkiguten, Koronabirusa hirira heldu zela, eta beraz, klaseak eten egingo zirela ohartaraziz. Beldurra sentitu nuen hasieran, aldi berean informazio eta desinformazio ugari nuelako. Ez nekien benetan zer sinetsi eta zer ez.

Beldur hori areagotzen joan al zen hildakoen kasuak agertu ahala?

Bai. Egia da. Hala ere, Txinan jende ugari bizi da, eta beraz, horrekin alderatuta, kutsatutako pertsona kopurua ez da uste zena bezain altua.

Nolakoa izan zen bi astez berrogeialdian egotea?

Etxera etorri ziren horren berri ematera, eta horrekin batera, orri bat ere eman ziguten. Orri horretan, bi as-

tetan, etxetik bi egunez behin atera ahal genuela abisatzen gintuzten.

Gainera, etxetik atera orduko, orri hori entregatu behar genuen, txartel modura. Kontrol bat eramateko metodoa zen. Unibertsitateak itxi zituztenez, klaseak *online* bidez hasi ziren ematen; beraz, ez nuen arazorik ikasteko.

Supermerkatuak ixteko beldurra ere bagenuen; horregatik, batzuetan erosketak nola egin ere ez genuen ondo jakiten.

Erraza izan zen etxetik atera ezinik ibiltzea?

Zaila izan zen. Hirugarren egunean, benetan ohartzeko zara egunak 24 ordu dituela, eta ia erdia lo edo deskantsatzen igarotzen duzula. Etxean horrenbeste orduz zaudenean, oso zaila egiten da zerbait produktiboa egitea, ikastea, edota kirola praktikatzea. Etengabeko errutina batean sartzen zara, ia ezer egin gabe. 10 milioi lagun bizi gara Hangzhoun; hortaz, oso arraroak izan ziren egun horiek, kalean ez zebilelako ia inor; supermerkatuetan egoten zen jende gehien.

ZIFRAK LURRALDEKA

- Txina: 80.000tik gora eta 3.000 hildako baino gehiago.
 - Italia: 12.000 kasu baino gehiago eta 800dik gora hildako.
 - Iran: 9.000 kasutik gora eta 350 hildako baino gehiago.
 - Espainia: 2.200 kasutik gora eta 50 hildako baino gehiago.
 - Euskal Herria: 320 kasu baino gehiago eta 9 hildako.
- *Edizioa ixterako eguneratutako datuak.*





Ane Ayerbe tolosarra, Txinako Hangzhou hirian. **ATARIA**

Prebentzio modura izan zinen bertan, eta behin bi asteak pasata, hona etortzea erabaki zenuen.

Erabakia hartzea zaila izan zen, hona etortzeak kostu ekonomiko bat duelako. Agian, egoerak hobera eginez gero, ez zuen merezi handik hona etortzeak. Hala ere, bisa berritu behar nuenez, handik atera behar izan nuen. Horregatik, opor txiki batzuk hartu eta etxekoengana itzultzea erabaki nuen.

Nola bizi zen Koronabirusaren izua Txinan?

Beldur handia nabari zen. Txinatarrek, baina, alde on bat dute: Gobernuak esandakoari jaramon egiten diote. Harrigarria izaten ari da. Gobernuak emandako prebentzio neurri guztiak ari dira betetzen herritarrek; biak, Gobernua eta herritarrek, oso ondo ari dira portatzen. Hori dela eta, gaixoen kopuruak, baita gaixotzeko arriskuak ere behera egin du.

Ba al duzu kontakturik Txinan?

Bertatik atera ezin izan duten lagunak ditut. Orain, normalizazio prozesu batean dago herrialdea. Birusarekin kutsatutako biktimen tasa jaitsi

TXINATIK MUNDU OSORA

laz, Txinako Wuhan hirian azaldu zen Covid-19 birusaren lehen biktima. Gerora, epidemia honek 125.000 kasutik gora utzi ditu mundu osoan zehar eta ia 5.000 hildako; batez ere, Txinan bertan, Iranen, Korean eta Italian. Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian ere badira zenbait kasu, eta hildakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du. Eskualdean, oraingoz, ez da kasurik atzeman. Hala ere, bertako herritar asko dira, Ayerbe bezala, Italian nahiz Espainiako herri batean egon ondoren, etxetik atera gabe egon direnak. Gauza bera gertatzen ari da, orain, Gasteizen ikasten ari diren herritarrek.

egin da Hangzhoun, eta beraz, gaixotzeko arriskua txikia da. Jada ez daude berrogeialdian, nahiz eta gune gorriak badiren. Ez dago alarmarako arriskurik. Egoera nahiko kontrolatuta dute, nahiz eta oraindik eskolak eta unibertsitateak itxita mantendu; apirilean irekiko dituzte. Zenbait lantoki eta jatetxe, berriz, ireki dituzte jada.

Zer esan zizuten Tolosara etortzean?

Lagun askok txantxa modura hartzen zuten kontua, baina batzuek bazuten beldur apur bat. Ea proba egin nuen galdetzen zidaten; ez ziren egoeraz guztiz fio. Kasualitatez, ni etorri eta hamalau egunera, kuadrillako lau lagun gaixotu ginen, baina aitortu behar da tartean inauteriak izan zirela, eta ezbeharra ez zela harago joan.

Benetan izua eragiteko moduko kontua da, hala izua azkarregi ari da zabaltzen?

Hedabide desberdinak min handia egiten ari dira, informazio gehiegi ematen ari direlako, eta batzuetan, gainera, ez da benetakoa. Gero, medikuen gomendioak entzuten dituzu, eta ohiko gripe bat bezalakoa dela diote. %3ko hilkortasun tasa du, beraz, ez da ezer larria. Badiara Koronabirusa baino gripe eta pneumonia arriskuatsuagoak. Birus hau ohiko botika bat hartuta sendatzen da; harrapatuz gero, ez zaigu ezer pasako. Muturreko egoera baten aurrean gaudela dirudi.

Txinera ikasten ari zara, eta lanean hastekoa zinen.

Laster hiru urte beteko dira txinera ikasten hasi nintzela; beraz, esan daiteke, maila on bat lortu dudala. Baina,

profesionalki hazteko ere joan nintzen. Horregatik, duela gutxi praktikaldia burutu nuen aldizkarian ariko naiz lanean, editore eta diseinatzaile grafiko modura. Oso pozik nago, ez nuelako aukera hau espero.

Data hauetan hara itzultzea pentsatzen zenuen. Zertan da ideia hori?

Oraingoz *online* ari naiz lanean, baina bi aste barru itzuli nahiko nuke. Hala ere, berrogeialdian egon beharko dut, lanean normaltasunez hasi baino lehen.

BOTIKA BAT HARTU AURRETIK, GALDETU

Herritarren artean zabalduta dago medikuaren gomendiorik jaso gabe medikatzearena. Ohitura hori ez dela ona diote adituek, eta hobe dela, beti, botikaren bat hartu aurretik kontsultatzea.

Eneritz Maiz Etxarri

Eztarriko mina, buruko mina, tripako mina bizkarreko mina,... ohikoak dira herritarrengan, egunerokoan. Eta ohikoa izan ohi da, etxeko botikinetik, medikuaren edo osasun langile baten gomendiorik gabe min horiei aurre egiteko botikak hartzea. Jakina da, jendeak botikak kontsumitzen dituela, baina arduraz jokatzearrantsitsua dela diote osasun langileek.



Maialen Rodriguez, Nagore Esnaola eta Leire Garziarena, Azpiroz farmazian lan egiten dutenak batzuk dira. **E. MAIZ**

Lourdes Azpiroz, Irune Rodriguez, Nagore Esnaola, Leire Garciarena eta Maialen Rodriguez dira farmazia kudeatzen dutenak. Jende helduak ohitura gehiago duela farmaziara joateko dio Maialen Rodriguezek, eta jendeak botikak «erraz» hartzen dituela berretsi du: «Bai, bai. Hori horrela da. Beti izan dira, bizilagunak esan dit berari ondo joan zaiola, eta nik ere nahi dut. Eta uste dut hori ez dela inoiz aldatuko».

Telebistan farmaziako produktuen iragarki pila bat daudela ekarri du gogora, eta gaur egun izugarritzko informazioa eskura dagoela Interneten. «Guk jada nabaritzen dugu, jendea gauza konkretu baten bila datorrela. aholkurik ez du eskatzen, eta hori aldatzea asko kostatzen da. Ez dakit jendeak gudan ez duen konfiantzarik edo, sarritan ondo joan bazaio ez du aldatu nahi izaten».

Farmaziak osasun zerbitzu bat direla azaldu du, eta patologiaren arabera medikuarengana edo farmaziara joan daitekeela gaixoa: «la hogeita lau orduz irekita daude farmaziak, eta mediku etxeak, batzuetan, gainezka egoten dira. Askotan, guk, gomendio huts batekin, irtenbidea aurkitu diezaiekegu. Beste askotan, medikuarengana ere bideratzen ditugu».

Farmaziara sartzen den pertsona bakoitzak arazo edo minen bat duela gehienez dio: «Normalean minak izaten dira: burukoak, tripakoak,... Gure lana gomendioak ematea da». Osasun langile baten gomendioek lehenengo aukera izan beharko luketela garbi du Ro-



driguezek: «Jende asko etortzen da etxean, esaterako, ahoko mina duela eta Nolotil bat hartu duela esanez, eta eske. Ez. Batzuetan asmatzen dute, baina hobea litzateke lehenengo etorri, gure gomendioa entzun eta ondoren hartu beharrekoa hartzea. Beti dago nahi duena egingo duena, baina osasun langile baten gomendioa jaso beharko lukete ezer hartu aurretik». Laguntzeko daudela azpimarratzen du, eta lasai gerturatzeko: «Ez dute beti eskuetan produktu batekin atera behar, eta uste dut horren beldur handia dagoela».

Errezeta elektronikoarekin zaildu egin zaie lana, eta azpimarratu du «osasunari begira» hartutako neurriak direla. «Jendeari asko kostatzen zaio hori ulertzea, eta azkenean, gaiztoak gu bihurtzen gara. Ibuprofeno

eta paracetamolarekin asko gertatzen da. Berez, osasunerako onura dira. Konprobatuta dago ibuprofeno 400 miligramokoarekin nahiko dela, eta 600ekoa ezin dugu saldu». Antibiotikoaren kasuan, errezetarik gabe ezin direla eskuratu jendeak dagoeneko ulertu duela argitu du. «Ibuprofenoa da antibiotikorik salduena, eta jende batek oso erraz hartzen du. Ahaztu egiten da efektu desiragaitzak ere badituela, eta ez da ona arinkeriaz hartzea».

Era berean, gaur egun ditugun produktuekin, izugarriko mina izanez gero, min hori jasaten egon beharrik ez dagoela defendatzen du, baina neurrian dago gakoa, eta: «Botika guztiei izan behar diegu errespetua; beldurrik ez, baina errespetua bai».

ATARIA jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



ASTE TXURI-URDINA MARTXOAREN 9TIK 15ERA

Gure txapeldunen garaipen historikoa oroitzeko erretilua ATARIAren eta HITZAren eskutik.

ATARIKIDEEK

GAINERAKOAK

~~8€~~ 5€

~~12€~~ 9€

Bi erosita, hirugarrena opari.

Salmenta puntua:

ATARIAren bulegoa: San Esteban 19, Tolosa



ORTO-K metodoarekin

ezabatu
zure miopia
lo zauden bitartean

Kontsultatu itzazu
optikan kanpainaren
ezaugarriak eta
doaneko azterketa bat
egingo dizugu.



Ondo ikusi nahi zaitugu
ondo ikus dezazun nahi dugu

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS


www.multiopticas.com

13.000, asko da!



AITOR ATXEGA
MANEX BAT

Badirudi Zuberoako biztanleria 13.000 pertsona eskas bueltan mugitzen dela momentu hauetan. Aurkitu ditudan estatistikek diote bertako hazkunde tasa -4.5 bueltan dabilela. Ea zenbat diren 2020 bukaeran! Zuberoa osoak baino pertsona gehiago ditu Tolosak berak bakarrik, eta haxe da hain zuzen le-

erro hauek isuri dituen ideia nagusia.

Ohikoa da Zuberoaz hitz egiterakoan lurralde *eri* bat ikustea; hizkuntza galtzen ari dena, biztanleria uxatzen duen parajea, industriarik gabeko (alegia gero oparorik gabeko) lurralde bat, gazterik izango ez duen lurralde bat... Eta zalantza askorik gabe horrelatsu izango dira. Aurrerabideak jarduera ekonomikoekin lotzen ditugu askotan; teknologia zentro modernoekin, hauek lanpostu edo langile adituekin, hauek gazteekin... Kanpotiko so orokor batetik badirudi Zuberoako lurretan ezingo litzatekeela ezer ernaldu edo harrotu. Eta hain zuzen kontrako ideia batek dakartza lerro hauek.

Askotan txundituta geratzen naiz Zuberoak duen kultur produkzio tamaina, kalitate eta garaikide izateko deierarekin, artikulu honen hasierak ematen duen ikuspuntutik. Musikari gazteak dituen reggae talde bat punta-puntan dabil aspaldion. Holako musika talde bat ez litzateke aparteko nobedade gaur egun baina badu hegoaldean nahiko ezinezko ikusten dudana lurrin bat: gazteak, reggae eta Etxahun Iruri eta Xabier Leteren hitzekin osatutako erreperatorioa. Musikarekin jarraitzeak badu ez bukatzearen arriskua Zuberoan, baina esan dezadan sortukuntza ikaragarria dela kopuruan nahiz proposamen moldeetan. Musika tradizionalena oso presente

den bezala proposamen garaikideen ere leku dute Zuberoan. Sortu berri da Hor Hor proposamena adibidez. Gure idazleek sortutako testuak (Itxaro Borda, Artze ...), 3 emakume, kontrabaxua, erotismoa...

Oso jakinak diren arren ezin utzi urtero errepikatzen diren maskaradak eta pastoralak. Ikusgarri hauek emateko jende asko eta dedikazio ikaragarria behar izaten da. Pastoral bat antolatzeak ia bi urte eskatzen ditu, maskaradak antolatzeak urte erdi baino gehiago...

Xiru jaialdia etorri zait gogora. Urtero, Gotainen eta Aste Santu bueltan, oso jaialdi berezi bat antolatzen da. Jaialdi xarmagarri bat da; izan ere, han ikusiko dituzu bestela ikustea zail diren gauza asko: musika tresna harrigarriak, Europa ekialdeko herrietako erreperitorioak, zirku proposamenak, euskal kabaretak, Zuberoan bertan jaialdirako propio sortutako ikuski-zunak... Jaialdi honetan *Musiheska* diskoa aurkeztu zen joan den urtean, Mixel Etxekoparrek koordinatutako diskoa. Lannemezango espetxean xirula erakusten aritzen da Mixel eta bertan entsalada eder bat sortu zuen: presondegian egin eta sortutako tresnak, irudiak, kantuak eta hitzak...

Manexaren txokoak leku muga bat duenez, beste zerbait aipatzekotan *Xiberoko Botza* aipatuko nuke. Zubereraz emititzen duen irrati bat da hau eta oso txukun egiten duela esango nuke. Nik etxean ia eg nero entzuten dut *Xiberoko Botza* bere webgunean. Zuberoako artistak oso ondo zaintzen dira etxe ho-

netan, herrietako kontuak entzun ditzakezu, lurrari buruzkoak, nekazaritzari buruzkoak...

Kontatu dudana 100etik 10 baino ez da, eta produkzio guztiaren sortzaile eta hartzaile, 13.000 pertsona baino gutxiago dira. 13.000 zinez asko da!





BATELAK DIRA OINARRIA

Harrobiko lan handia egiten dute Tolosaldeko Arraun Klubean. Bateletan hasten dira gazteak arraunean, eta nesken kasuan, senior mailara pasatzerakoan traineruan aritzeko aukera dute.

Imanol Garcia Landa

O hitura bihurtu da Tolosan arraunlariak ikustea, Oria ibaian gora eta behera. Tolosaldeko Arraun Klube-ko (TAK) gazteak dira, entrenatzen. Aurtengo denboraldian TAKeko 16 batel ari dira lehian Gipuzkoako Ligan, 120 arraunlari inguru. Infantiletan nesken hiru batel dira, eta bi mutilenak. Kadeteetan bost batel dira neskenak, bi mutilenak, eta jubeniletan nesken eta mutilen bina batel daude.

«Aurtengoan nesken batel gehiago daude mutilenak baino, iaz kopurua

«Garbi dago harrobia atzetik datorrela, bateletako neskek trainerua hor dagoela ikusten dute»

SABINO ALIJOSTES

orekatuagoa egon zen», azaldu du Sabino Alijostes TAKeko lehendakariak. «Batetik futbolak-eta asko eragiten du mutilek zer kirol egin erabakitzerakoan. Halere, gero eta neska gehiagok ere jokutzen dute

futbolean. Nik uste dut eragin handia duela klubean nesken trainerua izateak, Tolosaldea izenean ateratzen da, eta horrek nahiko bultzada ematen die».

Senior mailan ez dute batelik ateratzen, ez mutiletan ezta nesketan ere. «Mutiletan trainerurik ez dugunez, senior izatean bakoitza nahi duen klubera joaten da. ACTko ligan dauden zenbait klubetan badaude hemendik ateratako arraunlariak», esan du Alijostesek.



ORIA BATELEZ BETETA

Martxoaren 15ean, igande honetan, Gipuzkoako Ligaren jardunaldia jokatu da Tolosan, Oriako uretan, infantil eta kadete mailetan. Jubenil maila ez bada jokutzen ere, beste bi mailak batuta 61 ontzi ariko dira lehian: 11 infantil nesketan, 11 infantil mutiletan, 20 kadete nesketan eta 19 kadete mutiletan. «Hau dena antolatzea lan handia da. Erreka ez da arazoa, arazoa batel guztiak jaitsi eta igotzea da», esan du Alijostesek. «Normalean oso gustura joaten da jendea. Azken finean, erraztasunak ditugu inguruko azpiegiturak erabiltzeko: atoiak eta batelak Trianguloan izaten dira, bilerak egiteko kultur etxean, euria egiten badu arraunlariek Zerkausian egoteko aukera dute...».

Jardunaldia 10:30ean hasiko da eta bi ordu inguru iraungo du. Erlojuaren kontra egiten dute proba eta banaka ateratzen dira, minutu bateko tartearekin. Infantilek 1.000 metro egingo dituzte, eta Patin pista inguruan egongo da ziaboga. Kadeteek 1.500 metro egingo dituzte, eta ziaboga Berazubiko zubira iritsi baino lehenago kokatu da. Bi mailetan ziaboga bakarra egingo dute, eta beraz baldintzak berdinak dira guztientzako. «Jardunaldiak irauten duen denbora guztian batelak daude ibaian, lehiatzen edo beroketa lanak egiten, eta hori ikusgarria izaten da. Lehen arraunean ibiltzen zirenak kaletik geratzen zaituzte, harrituta Oria batelez beteta ikusten dutelako. 'Zer gauza polita', esaten digute».

«Gehienek fitxa gurekin egiten dute, baina gero utzita joaten dira beraiek nahi duten klubera. Ez dugu arazorik jartzen». Bestalde, 2018an traineruen ETE liga hasi zenetik, senior mailako neskak klubean aritzen dira. Jubenil mailakoek traineruan ere aritu daitezke, eta iazko denboraldian zenbaitzuk egin zuten jauzia. «Garbi dago harrobia atzetik datorrela, eta bateletan dauden neskek ikusten dute hortxe badagoela aukera traineruan aritzeko».

«Oso ondo» doa liga

Urtarrilean hasi zen Gipuzkoako Liga, eta emaitzei begira, «oso ondo» doazela dio lehendakariak. Sei estropada jokatu eta gero, infantil neskak aurrena doaz, infantil mutilak hirugarren, kadete neskak bigarren doaz, kadete mutilak laugarren, jubenil neskak aurrenak doaz eta jubenil mutilak hirugarren. Liga bukatzeko bost jardunaldi falta zaizkie infantil eta kadete mailakoei, eta hiru jardunaldi jubenilei.

IMANOL GARCIA LANDA

Txapelketen egutegia

Gipuzkoako txapelketak

Apirilak 4 eta 5, Pasaia.

Euskadiko txapelketak

Apirilak 18 eta 19, Legutio.

Espainiako txapelketak

Apirilak 25 eta 26, Galizia.

Espainiakora joateko Euskadiko Txapelketan aurreneko bi postuetan sartu beharra dago.

Ligaren ondoren etorriko dira Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketak. Iaz Espainiako Txapelketara lau ordezkari eraman zituen klub bakarra izan zen TAK. Horietatik bi finalera sartu ziren, kadete mutilak eta jubenil neskak, eta azken hauek txapeldunak izatea lortu zuten. Infantil neskak eta mutilak finalera ezin izan ziren iritsi, baina kontsolazioko finalean lehen eta bigarren postuan sailkatu ziren.

«Euskadiko Txapelketan iaz sei taldeak, guztiak, finalera sartu ziren, eta horietatik lau Espainiakora sailkatu ziren. Eraitza oso onak dira horiek», nabarmendu du Alijostesek. Aurten eraitza horiek errepikatuko ote diren aurreratzea ez dela erraza gaineratu du: «Oraingo, Gipuzkoako ligan, sei mailatan lau aurrenekotan goaz. Gero, ikusi egin beharko da Bizkaiko batelek duten maila».

Tolosako Zerkausiaren azpian dute azpiegitura guztia TAKekoek. Egun 12 batel dituzte bertan. «Orian entrenatzeko ondo moldatzen gara, baina gero arazoa izaten da estropadara joaterakoan, batel guztiak atera behar baititugu ostiraletan», esan du Alijostesek. «Eta gero berriz ere Zerkausiaren azpira eraman behar dira batel guztiak. Nahikoa lan izaten da mugimendu horiek guztiak egitea».

Emakumezkoen Tolosaldea traineruak klubarentza-

ko garrantzia duela dio Alijostesek: «Jendearentzako eta komunikabideentzako erregina da». Arraunlari guztiak harrobikoak dituen talde bakarra dela nabarmendu du: «Beste inon ez da hori gertatzen. Hori bai, gero arraunlariak eskarmentu pixka bat hartzen dutenean, hurrengo denboraldiari begira maila pixka bat igo dezakegunean, talderen batek arraunlariak kentzen dizkigu eta berriro ere ia zerotik hasi egin behar izaten dugu. Aurten bi arraunlari joan dira, eta horrek bere eragina du taldean».

Trainerua,

Ilusioz daude Tolosaldea traine-ruko arraunlariak eta entrena-tzailea proiektuaren hirugarren urtean murgilduta. Aurten San Pedro klubak utzitako azpiegitura eta materialak erabiltzen ari dira uretan entrenatzeko.

Hirugarren denboraldia martxan da Tolosaldea traineruarentzat. Tolosaldeko Arraun Klubak egindako apustuari jarraipena ematen ari dira, eta gogoz daude aurtengo ETE ligan zer egiteko gai diren ikusteko. Horretarako, baina, ekainera arte itxaron beharko da. Oraingo, neguko zenbait estropadetan parte hartu dute, eta «sentsazio oso onak» izaten ari dira, Malen Oiartzabal arraunlariak azaldu duenez: «Lehiaketan muturra sartzen hasi gara, eta neguko lana islatzen ari da. Negua gogorra doa, baina gure kasuan ikusten ari gara eraitzak badoazela, eta ilusio hori pizten ari zaigu. Uda



arraunlarien helburu

urruti dagoela dirudi, baina ohartzerako hementxe dugu».

Patxi Frances entrenatzaileak gaineratu duenez, «otsaileko balorazioak dira, baina ikusi dugu orain arte ondo lehiatu garela, eta gure ligan egongo diren traineruen gainetik sailkatu gara». Hori bai, arraunlariak zein entrenatzaileak zuhurtziaz begiratzen diote ETE ligan gertatu daitekeenari. «Badakigu zein diren aurkariak eta badakigu bere maila emango dutela uretan. Neguko estropadak negukoak dira», esan du Oiartzabalek. «Goiko postuetan egoteko moduan egon gaitezke, baina hankak lurrean izanik, eta jakinik aurkariak ez direla jolastera joango. Azkenean, akats gutxien egiten duena ibiliko da goian. Gu bide onetik goaz, eta ez da gutxi».

Francesek garrantzia ematen dio uretan egin dezaketen prestaketari aurreikuspenak osatzeko: «Gehiago elkartu behar gara uretan entrenatzeko, ikusi egin behar dugu zenbat kilometro egiten ditugun, eta horrek markatuko du lehenengo estropadetan nola ariko garen. Saiatu behar dugu taldea ondo landua egoten, eta arraunlariak gozatu dezatela estropada bakoitzean». Bestalde, harrobiko arraunlariak lan egiten dutela nabarmendu du entrenatzaileak: «Beste talde batzuek egin izan dituzte azken

orduko fitxaketak. Orain arte irabazi egin diegu gure ligakoei, baina ez dakigu zer-nolako mugimenduak izango diren hemendik ekainera bitartean beste klubetan fitxaketei dagokionez».

Aldaketak taldean

Guztira zazpi baja izan dituzte aurreko denboralditik, horietatik lau titularrak zirenak, eta hauetatik bi Arraun Lagunak taldera joan dira. «Ez gara honetatik bizi, eta bakoitzak ikusten du zer bide hartzen duen. Bajak izan ditugu eta taldekide berriak ditugu, maila txikietatik igo diren batzuk. Kontua da bizkarrezurra mantendu egin dugula. Aldaketak egon dira, baina talde sentimendua hor dago», esan du Oiartzabalek. Traineruaren proiektua sendotzeko eta goraka jauzia egiteko, «arraunlari guztien beharra» dagoela esan du Francesek.

Talde giro oso ona dutela diote. Francesek azaldu duenez, arraunlariak esaten die «oso gustura» dagoela aurtan, eta irrikan egoten dela ostirala iristeko entrenatzeko beraiekin. «Sekulako taldea daukagu eta oso elkartuta dago», gaineratu du. Oiartzabalek baieztatu egin du giro hori: «Aurtan ez dakigu zer gertatzen zaigun, baina oso giro ona dugu taldean. Denbora luzez ezagutzen dugu elkar, beheko maile-



TALDEKIDEAK

- Aiora Sorozabal Maioz (patroia). Oresa, 2002.
- Andrea Zumeta Lakunza. Tolosa, 1998.
- Ane Zelaia Mendizabal. Alkiza, 2003.
- Ane Egues Kerexeta. Elduain, 2001.
- Arene Portularrume Iruretagoiena. Aia, 2002.
- Eider Zubeldia Albeniz. Amezketa, 2001.
- Estibaliz Segurola De La Canal. Tolosa, 1990.
- Irati Hernandez Aierza. Tolosa, 2001.
- Irati Lizeaga Agote. Tolosa, 2002.
- Itsaso Aizpurua Saizar. Zizurkil, 2000.
- Izaskun Sarasola Areizaga. Asteasu, 2001.
- Laiene Izagirre Askarai (patroia). Berrobi, 2003.
- Maddi Urdapilleta Rodriguez. Amasa-Villabona, 2003.
- Malen Oiarzabal Arretxe. Tolosa, 1999.
- Mireia Vicente Arana. Anoeta, 1998.
- Naroa Becerril Iraola. Tolosa, 2001.
- Naroa Leonet Tadeo. Tolosa, 2000.
- Uxue Zuriarrain Roteta. Amezketa, 2001.
- Uxune Urkia Sein. Idiazabal, 1997.
- Francisco Frances Irastorza (entrenatzailea). Donostia, 1958.

tatik gatoz, eta taldekideak izateaz gain, lagunak gara, eta horrek asko eragiten du gero».

TAKEk beste klubaren laguntza behar du entrenatu ahal izateko. Iaz Zarautz klubaren azpiegiturak eta materialak erabiltzen zituen eta Orion aritzen ziren entrenatzen, eta aurtengoan San Pedorenak erabiltzen ditu eta Pasaiaiko badia du uretan prestatzeko eremu. «San Pedron oso ondo hartu gaituzte, oso gustura gaude, eta ea paisaia aldaketa horrekin ontzia nola doan», esan du Oiertzabalek. Talde nomada

bat direla gaineratu du entrenatzaileak. «Denboraldi honetarako bidaia lagun on bat dugu San Pedroekin. Ni pozarren nago, benetan errazten digutelako lan guztia».

Orain gutxi arte larunbat eta igandetan aritu dira Pasaian entrenatzen, eta orain ostiraletan ere ari dira. «Ostiral arratsaldetan entrenatzeko zain egon gara egun-argi gehiago izan arte, Pasaiaiko badian hainbat ontzi ibiltzen baitira, eta zailagoa da mugitzea». Asteazkenean Tolosan elkartzen diren arraunlariak,

Uzturpeko gimnasioan aritzen dira lehorreko lanak egiten.

Hirugarren denboraldia du Tolosaldea traineruak. «Orain bost urte, jubenila nintzela, elkarrizketa batean esan nuen Tolosaldea trainerua sortzea amets batean geratuko zela, baina ez, ametsak ere errealtate bihurtzen dira», esan du Oiartzabalek. Atzera begirata, «oso irakurketa positibo» egiten du arraunlariak: «Asko ikasi dugu. Ni hasieratik nago hemen sartuta, eta nabaritzen da esperientzia pilatzen ari garela. Gainera, ikusi besterik ez dago atzetik datorren harrobia, zein ondo ari diren eta zer ondo prestatuta dauden. Badakizu traineruak segida izango duela, eta horrek sekulako segurtasuna ematen dio proiektuari aurrera begira».

Bere aldetik, bigarren denboraldia osatzen ari da Frances entrenatzaile moduan. «Bigarren urte hau

modu errazagoan eramaten ari naiz. Ni entrenatzeko beste modu batetik nator, jendearengana zuzentzeko beste modu batetik. Aurreko urtean oldarkorrageo etorri nintzen, beste modu batera atera nahi bainituen gauzak, eta orain ari gara maila horretara iristen baina beste modu batera. Ni neu pixka bat birziklatu egin naiz, eta nire aldetik oso gustura nago». Zuzendaritzaren eta arraunlarien «babes osoa» duela gaineratu du Francesek.

Klubean egiten den lana goraipatu du, bide batez, entrenatzaileak: «*Pasada* bat da nola egiten duten lan, hor Zerkausiaren azpian, eta izugarrizko balioa du. Mugimendu orokor bat izaten ari da emakumezkoen kirolek tira egiteko, eta TAKEkoek serio hartu dute: neska arraunlari gehien dituen kluba da gaur egun, maila guztiak kontuan hartuta. Barnealdeko eskualde bat izanik, horrek asko esan nahi du».



Aurreko postuetan, neguko estropadetan

Lau estropadetan lehiatu dira orain arte Tolosaldea trainerukoak. Hondarribiko jaitsieran hirugarren postuan amaitu zuten, Eusko Tren ligako lau ontzien artean sartuta. Orioko jaitsieran ETE ligan aurkari izango dituztenen aurretik helmugaratu ziren, Eusko Tren ligako ontzien artean, baina ez distantzia handira. Larunbatean jokaturako San Pedroko estropadan ere bere ligako beste ontzien aurretik iritsi ziren, laugarren eginez.

Euskadiko Distantzia Luzeko Txapelketan ere parte hartu zuten. «Arazo teknikoak tarteko, ez zen izan gure estropada biribilena, eta laugarren bukatu ge-

nuen azkenean. Beti ere hobea da akatsak orain egitea eta ez gero liga hasten denean», zehaztu du Oiartzabalek. Bere aldetik, Frances gustura dago estropadetan ikusitakoarekin: «Ligan 2.700 metroko estropadak izango ditugu, eta orain 4.000 metrokoak izan dira. Arraunlariak oso ondo doaz teknikoki arraunean, eta teknika hori erabiltzen dugu neskak bukaeraraino egoteko estropadan».

«Ez dago favorito argi bat Eusko Tren ligan»

IOANA ALIJOSTES ETA IRATI LARRAÑAGA
ARRAUNLARIAK

Imanol Garcia Landa

Berriro ere ontziratu dira Ioana Alijostes (Tolosa, 1988) eta Irati Larrañaga (Tolosa, 1991). Oraingoan Eusko Tren ligan lehian ariko den Kaiarriba elkarteko Donostiarra traineruan. Tolosaldea Arraun Klubean hasi ziren bateletan, eta gero hainbat trainerutan aritu dira, beti batera: Getaria-Tolosa, Zumaia eta San Juan. Klub berrian Naroa Urkola anoetarra eta Olatz Lopez tolosarra ere badaude.

Nolatan eman zenioten baiezkua Donostiarra traineruan sartzeko gonbitari?

Ioana Alijostes: Maialen Arrazolak, bere garaian gure taldekide eta entrenatzaile izan zena San Juanen, deia luzatu zigun orduko taldekideei, eta hortik etorri da dena. Momentu guztian taldekide bezala baloratu dugun gauza bat izan da, eta erabakia bera ere talde bezala hartu genuen, guretzako *plus* bat zelako taldeki-deekin batera arraun egitea.

Dagoeneko hilabete batzuk daramatzazue, ezta?

Irati Larrañaga: Urri bukaeran edo azaroaren hasieran eman genion baiezkua Maialeni, eta pixkana hasi ginen entrenatzen. Eta bai, dagoeneko hilabete batzuk daramatzagu entrenatzen, estropada batzuk egiten, eta pixkana martxan hartzen.

Eta asko kostatu zaizue berriro traineru batean sartzeari?

I.A.: Beti kostatzen da pixka bat urtebete utzita izan ondoren berriro hastea. Baina arraun egiten ez da ahazten. Gehiago kostatzen dena entrenamenduen martxa hartzea da, astean sei aldiz entrenatzea, sortzen duen lotura... Gorputzari bere denbora eman behar zaio berriro dinamika horretan sartzeko, eta pare bat hilabete kostatzen da martxa hori hartzea, baina gero segituan jartzen zara berriro prest.

I.L.: Nik loanarekiko ezberdintasun txiki bat izan dut. Bera aurretik izan zen urtebetez geldirik, baina niretzako lehenengo aldia izan da geldirik egotearena, hamar urte arraunean aritu ondoren. Hasieran bertigo pixka bat ematen dizu, baina gero badakizu behin entrenatzen hasten zarenean segituan jartzen zarela: badakizu nola diren entrenamenduak, badakizu negua gogorra izaten dela. Egia esan gustura ari gara entrenatzen eta ez da oso zaila izan berriro martxan jartzea.

Beraz, ez zarete damutzen hartutako erabakiaz.

Biak: Pixka bat berandu da horretarako (kar, kar).

I.A.: Normalean gogorrenak lehenengo hilabeteak dira, urria, azaroa... Gero, neguan ere uretara joateko lehe-





Irati Larrañaga eta
Ioana Alijostes. **ATARIA**

nengo egun horiek, iluna dagoela, euria, eguraldi txarra. Baina hemendik aurrera badakigu denak hobera egiten duela, uretara gehiago joaten gara, eta taldea gero eta landuago doa.

Nolako giroa daukazue traineruan?

I.L.: Egia esan oso giro ona daukagu. Erabakia hartzeko garaian buelta asko eman genizkion gai honi. Ez genuen joan nahi San Juaneko arraunlari bezala, ezer inposatuz edota lekua kenduz. Guk erabakia hartu aurretik esan genuen prest egongo ginela bertara joateko, baldin eta taldearen onarpena bagenuen. Bide horretatik joanda, beraiek oso ondo hartu gaituzte, eta gu azkenean gogo askorekin joan gara eta oso giro ona daukagu. Jende jatorra bilatu dugu. Beraiek jauzi bat eman nahi zuten eta gu horretarako prest joan gara, gure eskarmentutik laguntzeko. Taldea elkartuta dago eta oso ondo funtzionatzen ari gara talde bezala.

Emaitzen aldetik nola ikusten duzue orain artekoa? Besteak beste Distantzia Luzeko Txapelketa irabazi duzue.

«Tolosa beti izan da gure etxea eta joaten garen bakoitzean ateak zabalik ditugu»

IRATI LARRAÑAGA

I.A.: Oraingoz oso ondo hasi gara denboraldia. Oraindik oso goiz da ezer esateko, eta denok dakigu garrantzitsuena ekaina bukaeratik aurrera datorrela, baina beti ematen dizu indar puntu eta ilusio puntu bat entrenatzen jarraitzeko.

Nolako borroka aurreikusten duzue ligan? Iazkoa ikusita, Orio da faborito?

I.L.: Oraindik denbora falta da. Hondarribiak goraka egin duela ikusten da, Arraun Lagunakek ere taldea indartu du, Oriok iaz erakutsi zuen irabazteko gaitasuna duela, eta guk ere erakutsi dugu irabazteko gai garela. Hemendik uda bitartean laurok dugu asko hobetzeko, eta uste dut oso borroka polita izango dela, eta ligak ikuskizun handia emango duela. Ez dut ikusten faborito argi bat dagoenik.

I.A.: Iritzi berekoa naiz. Denboraldi-aurreko estropadetan ikusi da berdintasuna badagoela. Uda begira, egunaren arabera ere izango dira emaitzak: bakoitzak zer apustu egiten duen, zer sasoi puntu dituzun, zer jende jartzen duzun, zer kale tokatzen zaizun, itsasoaren baldintzak...

Tolosaldeko Arraun Klubarekin harremana izaten jarraitzen duzue?

I.A.: Beti izan dugu harremana, eta beti esan dugu *kariño* berezia diogula klubari, hor hasi ginelako, Orian ordu asko sartu ditugulako, arraunlari bezala eta gero entrenatzaile bezala ere. Iaz traineruko neskei laguntzen aritu nintzen, eta jendearekin konfiantza dugu, beti oso ondo zaindu izan gaituzte, eta traineruko neskekin ere harremana dugu.

I.L.: Tolosa beti izan da gure etxea eta joaten garen bakoitzean beti ditugu ateak zabalik, beti hartzen gaituzte besoak zabalik. Eta guk, joaten garen lekura joaten gara, beti esaten dugu Tolosako arraunlariak gara.



harpidedun izateak badu saria

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra.
www.errigora.eus

ERRIGORA proiektuko 3 saski



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu ATARIAko ZOZKETAK atalean. Parte hartu hilabete honetan, martxoaren 2tik, martxoaren 16ko 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, asteartea, argitaratuko ditugu.



saridunak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LECHE RIO
BREOGAN**

**Partida bertan
behera geratu da**

Martxoak 15, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Atarikideentzat **lau sarrera** ditugu



Kamerata Euskdivarius
• Alazne Lasa (Irura)

Martxoak 13, 20:30etan, Leidorren.

Ataria jarriko da harremanetan



Fidelio opera zuzenean
• Garbiñe Azaldegí (Tolosa)

Martxoak 17, 20:45etan, Leidorren.



Mozorro


hoberenaren bila

Bozkatu hemen





Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia



Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
**ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria**



Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria



Atzera goaz, aurrera ez bagoaz



ANE AMUNDARAIN
BIOMEDIKUNTZAN
DOKTOREGAIA

Irakurle maitea, ba al zenekien pasa den otsailaren 11-n Emakumearen Eguna Zientzian ospatu zela? Oraindik guztiz beharrezkoa den eguna. Alde batetik, datozen belaunaldi-tako nesken artean zientziaren grina pizteko. Bestetik, gaur egun oraindik emakume izanagatik zientzia munduan jasaten den diskriminazioa salatzeko. Eta azkenik, historian zehar

zientzian lan egin duten emakume guztien lana errebindikatzeko.

Gaurkoan beraz emakumeak zientzian izan duen historian bidaia zirraragarri batera gonbidatzen zaituztet. Nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar dugulako.

Emakumearen historia zientzian zibilizazioen sorrera bezain zaharra da, lehen emakume zientzialarien erregistroak Antzinako Egipto eta Grezian aurkitu baitira. Hauen artean, beharbada Alexandriako Hipatia ezagutuko duzue, lehen emakume matematikari modura ezaguna dena. Aritmetika, geometria eta astronomian egindako ekarpenez gain, garaiko emakumeen eskubi-deen alde borrokatzeagatik ere ezaguna da, gaur egun emakume zientzialarien borrokaren ikono bihurtzeraino.

Egipton eta Grezian emakume zientzialarien lana nahiko ondo ikusia bazegoen ere, Erdi Aroan gauzek errorekin egin zuten okerrera. Eliza kristauak martxan jarritako sorgin ehizaren haritik, Europa osoan medikuntza edo alkimian jarduten zuten emakumeak sorgintzat hartu ziren, hauetako asko beraien lanagatik jarriak eta exekutatutak izan zirelarik. Garai honek sortu ziren lehen unibertsitateak, baina ez zuten emakumerik onartzen. Hau dela eta, XVI-XVII. mendeetan emandako zientziaren iraultzan parte hartu zuten emakume

gehienek beren senarren eskutik edo klase pribilegiatu-koak izateari esker lortu zuten zientzia elkarteetan onartuak izatea, emakumeen gaitasun akademikoak gutxiesten zituen gizarte bati aurre eginez.

Ilustrazioaren eskutik, emakumeek lehen aldiz unibertsitateara joateko aukera izan zuten, emakume zientzialari gehiagoren agerpena sustatuz. Hala ere, lan munduan gutxietsiak izaten jarraitzen zuten, askoren ekarpenak senarraren edo familiartekoen itzalean geldituz. Gainera, emakume hauetako askoren papera irakaskuntzara mugatzen zuten, ikerketak burutzeko generoagatik bakarrik ikaragarritzko trabak jartzen baitzitzaizkien. Esaterako, Ada Lovelace matematikariak, gaur egungo programazio informatikoaren ama denak, bere teoriak ezagutarazteko gizonezko lankide baten beharra izan zuen.

XX. mendearen etorrerarekin, zenbait emakume zientzialarien lana aintzat hartua eta saritua izaten hasi zen. Esaterako, Marie Curie-k erradioaktibitatearen inguruan egindako ikerketei esker Fisika eta Kimikako Nobel sariak jaso zituen mende hasieran. Hala ere, beste emakume askok beraien lanaren fruituak gizonen eskuetan gelditzen zirela ikusten jarraitu zuten oraindik ere... Edo, ba al zenekiten Rosalind Franklin-en lana ezinbestekoa izan zela DNA molekularen katea bikoitza aurkitzeko? Bada, Nobel saria Watson eta Crick-ek bakarrik jaso zuten.

Genero diskriminazioaren aurka borrokatu zuten emakume guzti hauei esker, gaur egungo emakume zientzialariok aurrekoek baino aukera gehiago ditu-

gu. Hala ere, zaila da oraindik zientzia munduan ardura handieneko postuetan emakumeak aurkitzea. Zalantzarik gabe, asko dago oraindik egiteko. Beraz, har ditza-gun gure aurretik izandako emakume zientzialariok eredu modura, zientzian dagokigun etorkizunagatik borrokatzen jarraitzeko.



Zaharra naiz Tik Tok-en ibiltzeko



ALEX PADILLA
KALEZALE
AMORRATUA

Beharbada sare sozialak gorroto dituzu. Akaso Facebook kontu bat ireki zenuen duela dezente eta honezkero ez zara apenas sartzen. Edo Instagram modan dagoela irakurri duzu leku askotan eta kontu bat zabaltzekotan zaude zure udako oporretako argazkiak igotzeko. Ba

jakin, oker zabiltzala. Ez zaudela in. Ez zarela cool.

Geratu izen honekin: TIK TOK. Bai-bai... TIK TOK, momentuko sare soziala. Gaur egungo nerabeen artean arrakasta gehien duen plataforma. Agur Facebook, Twitter eta Instagram. Gaur egun ez zara inor, Tik Tok-en ez bazaude. Era guztietako edukiak igotzen dira bertara: bideo musikalak, erronka bitxi zein frikiak... Orain arte gaztetxoak bakarrik zeuden, baina azken aldian, punta-puntako famatuak ere hasi dira beraien kontu ofizialak sortzen eta plataforma edukiez hornitzen. Negozioa orain hemen dago eta famatuak oso ondo dakite.

Hemen inguruan baditugu Tik Tok-er famatuak: Ordiziako Twin Melody ahizpak esaterako. Beraien kontuan, 12 milioi jarraitzaile baino gehiago dituzte gaur egun. 12 MILIOI. Beraien 15-30 segundoko bideoek milioika ikustaldi dituzte. Hona hemen, gaur egungo edukiak kontsumitzeko joera, lagunok.

Seguruenik, testu hau irakurtzen ari zaretenon ar-

sare sozial berri batek aurre hartu die hauei guztiei eta berriz ere, zerotik hastea tokatzen zaigu

tean, egongo da gurasoren bat Tik Tok-en berri bada. Horietako bat zu bazara, mezu bat daukat zuretzat: «Zure seme-alabek Tik Tok-ak ikusten orduak eta orduak pasatzen badituzte, egon lasai... EZ zaude bakarrik! Uneoro TIK TOK-er izan nahi dutela esaten badizute, zaude lasai... Hartu arnasa sakon, benetan beharko duzu eta».

Youtube eta Instagram kontrolatzen genituen momentuan, zer eta beste sare sozial berri batek aurre hartu die hauei guztiei eta berriz ere, zerotik hastea tokatzen zaigu. Baita niri ere. Hamar urte daramatzat sare sozialetan lan egiten. Hauek ordaintzen dizkidate nire hileko alokairua eta gastu guztiak eta orain Tik Tok izeneko sarean edukiak sortu behar ditut, hor omen daudelako euskal gaztetxoak. Kontrolatzen ez dudane sare sozial batean nerabeek hitz egiten duten hizkuntza ikasi behar dut modo autodidakta batean.

Hiru bat aste pasa dira APPa deskargatu eta probatzen hasi naizenetik, eta beste sare sozialekin izan ez dudane sentsazio bat izan dut azken honekin: «Zaharra naiz Tik Tok-en ibiltzeko». Bai, ez dut neure burua erronka frikiak edota bideo musikalak grabatzen ikusten. Gaztetxoek beraien hizkuntza propio bat sortu dute sare sozial honetan eta ni 32 urterekin, lekuz kanpo sentitzen naiz. Nire gurasoek Instagram kontu bat zabalduko balute bezala. Arazo honi irtenbide bat bilatzen diodan bitartean, 50 erronka berri sortu dira Tik Tok-en. Berandu noa. Oso berandu.

Youtube eta Instagram kontrolatzen genituen momentuan, zer eta beste

Garena



**OLATZ
PEÑAGARIKANO**

Izenburua partidu politiko baten eslogana izan daiteke, edo bertako produktuak kontsumitzeko kanpainaren aldeko leloa. Gauza ugari ezkutatzen dira lehenengo pertsona pluralaren atzean, beste hainbeste singularraren kasuan ere.

Aurkezpenak egiterakoan da oso nabarmena. Egin ezazu proba: Galdetu zure ondokoari aurkez dezala bere burua. Zer erantzungo luke? Beste xehetasun batzuen artean, ziur lanbidearen berri emango dizula. Lanbideak nor den argiago

tek begiak zerura eraman, egon zen irribarre txikia egin zuenik ere, aurkikuntzaz ohartu balitz bezala. Aurpegiko keinu txiki bakoitza salatari. Iragarkiaren atzean NAIZEN zegoen, adingabe transexualen familien elkarte. Zer gauza sinplea eta eraginkorra, zer sinple adierazi zuten identitatea bezalako gai konplexua. Izan ere, zertarako konplikatu, zertarako ibili itzulinguruka argi baldin badago: zuk erabakitzen duzu zer zaren.

Egia da iragarkiak zerikusi gehiago duela kondizio fisikoarekin, bistan da mezua dela hankartean duzunak ez zaituela *gizon* edo *emakume* egiten, baina esan gabe. Sutil. Esaten ez denak asko esaten baitu. Egiten ez duzunak bezainbeste.

Horregatik defendatzen dut eguneroko jardunak

Beste xehetasun batzuen artean, ziur lanbidearen berri emango dizula. Lanbideak nor den argiago utziko balu bezala. Lanbideak nortasuna islatuko balio bezala.

utziko balizu bezala. Lanbideak nortasuna islatuko balio bezala. Lanbideak izate osoa hartuko balio bezala.

Zuhur samarra bazara, honezkero konturatuko zinen horixe bera egin zuela elkarte batek. Euskal Herriko zenbait ospetsu bildu zituzten, eta kamera aurrean nork bere burua aurkez zezan eskatu zieten. Guztiek ogibidea aipatu zuten. Kamera atzekoak, orduan, hauxe bota zien: «Aizu, barkatu, zertan aritzen zaren kontatu diguzu, baina guk nor zaren jakin nahi dugu».

Klak. Batzuek hasperen bat egin zuten, beste ba-

ez zaituela zertan baldintzatu, ez pertsona hobe edo okerrago egiten, ez nor zaren esaten. Inondik inora. Eta hala ere tematzen zara norbait ezagutu orduko zer egiten duzun adierazten, ia nahitaezkoa balitz bezala.

Esango duzu esajeratzen ari naizela, eta lanbideak baietz, lagunaren inguruko pista eman diezagukeela. Ados, ez dizut ukatuko. Baina zuk ere onartuko didazu lan egiten duzula sosak irabazteko, eta benetan zaren hori bestelako egoeretan adierazten duzula, sentitzen duzunetik, sentitzen zarenetik. Sentitzen zarena zara, sentitzen garena gara.

Xabier Artola artzubi.eus

NEGUA

Udaberria ate joka dugun honetan, paisaia elurtua, negua. Zuhaitza oraindik biluz, etxola pare bat, mendia. Natura.





DESAFIOA

Herri kirola

Joxe Angel Sarasola

Herri kirol adituak Urrezko aizkolarari eta harri jasotzaileen finalez hitz egin digu aste honetan.



PASAHITZA

Baserritik

Amaïur Lopez

Anaiak duen ganadutegia-
ren jardunean hasiko da las-
ter. Galloway eta Aberdeen
Angus arrazadun behiak
hazten dituzte bertan.



GURE TXOKOTIK

Bidaian

Joanes Garikano

Mundura begira jarri gaitu.
Azken bi urteak bidaiatzen
igaro ditu, Argentina, Me-
xico, Ameriketako Estatu Ba-
tuak, Gambia, Senegal... eta
Kanadara egingo du laster.



PASAHITZA

Kulturari begira

Estitxu Pinatxo Dama Beltzak
proiektua izango da Orexan gaur,
eta nondik norakoak azaldu dizkigu.
Gainera, feminismoaz eta *Haize gorri*
batek diskoaz hitz egin digu.



Saio guztiak hemen,
ataria.eus/irratia-n
entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren ira-
garpena Iker Ibarluzearen
eskutik, solasaldi politi-
koa, errezeten atala Ain-
tzane Artolarekin, Idoia
Apaolaza psikopedago-
goa.

ENTZUTEKO JAIOAK

12:00. Musika tartea.

ZEBRABIDEA

16:00. Arrosa sareko ma-
gazina.

18:00. Goizeko saioen
onena.

KANTAZGORA

20:00. Musikarien propo-
samenak.

PLAYBACK ATARIA

21:00. Musika saioa.

LARUNBATA

TRIKITIA

10:00. Trikiti musika.

MESTIBULL

12:00. DJ Bullekin.

GURE TXOKOTIK

16:00. Elkarriketak.

ENTZUTEKO JAIOAK

18:00. Musika tartea.

IGANDEA

10:00. Asteko saioen
onena.

HARI NAIZELA

10:00. Bertsolaritza, Ima-
nol Artola Felix-ekin.

ENTZUTEKO JAIOAK

16:00. Musika tartea.

KANTAZGORA

18:00. Musikarien propo-
samenak.

ENTZUTEKO JAIOAK

20:00. Musika tartea.

MINGAINA TXULORA

21:00. Erotika, Jon Ima-

nol Etxabe sexologoare-
kin.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00. Eguneko berriak,
agenda, *Postalak* bidaia-
rien tartea, Patxadaz egi-
niko elkarriketak.

ENTZUTEKO JAIOAK

12:00. Musika tartea.

ZEBRABIDEA

16:00. Magazina.

18:00. Goizeko onena.

MAILU TA AKUILU

20:00. Musika saioa.

AGENDA

OSTIRALA MARTXOAK 13

ALKIZA M8

19:00. *Bakean dagoean bakean utzi* antzezlanak ikusteko aukera izango da kultur etxean.

AMEZKETA BERTSOA SAIOA

Bertso saioa Zazpi Iturri ekartean.

AMASA-VILLABONA BERTSO AFARIA

21:00. Ander Goikoetxea *Andriu*, Beñat Karrera eta Jon Mujika *Potzo*. Gaztetxean.

ANOETA KONTZERTUA

23:00. Ezpalak & Tenpera. Sarrera: 5 euro. Gaztetxean.

ASTEASU M8

19:00. Zinegoak jaialdiko film proiektzioa, udaletxean.

GAZTELU M8

19:00. *Itsaspetik azalera, azaletik plazara* antzezlanak eskolan. **Segidan**. Afaría (norberak bere janaria etxetik eramanda) Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkartean.

OREXA OSTIRAL KULTURALAK

22:00. Dama beltzak proiektuaren kontzertua Ostaturko ganbararen, Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezekin.

TOLOSA III. UDABERRI ANALOGIKOA

10:30. Jose Antonio Martinek eskainitako tailer praktikoa. *Introducción práctica al Colodión*

Húmedo. Izen ematea: 50 euro. 10:30-13:00 eta 15:00-19:00. boxa.argazkia@gmail.com.

ANTZERKIA

17:00. *Haiei zapatetan*. Tolosako Topaguneak antolatuta, antzerki emanaldia. 12-17 gazteei zuzendurik, talde mugatua. Topagunean.

ASANBLADA

18:00. Tolosako Gazte Asanbladaren bilera, Tolosako gazte langile orori deialdia luzatuta. Gazteburua antolatzeke lehen pausoa izango da, kultur etxean.

AMALUR JARDUNALDIK

19:30. *Pintxotan... Erroman?* Lucia Paretiren hitzaldia, Topic-en.

KONTZERTUA

20:30. Kamerata Euskadivarius. Leidorren.

22:30. Urtz, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

LARUNBATA MARTXOAK 14

ALKIZA M8

10:00-14:00. Emakumeek indarkeriarekiko dituzten bizipenak konpartitu eta eraso sexisten aurrean erantzun egoki bat ematen ikasteko lantegia, kultur etxean.

ALTZO MARTXO MOREA

17:00. Batzarremuñon *Berdea da more berria* liburuaren aurkezpena, Onintza Irureta idazlearekin.

AMASA-VILLABONA IRTEERA

08:30. Bisita gidatua Vicente Ameztorenen erakusketara. Bilboko Arte Ederretako museoan. Bisita gidatua, autobusez Villabonatik. **Irakurri erreportajea 26. orrian.*

BERDEL PILOTA FESTA

Behar Zana Pilota Taldearen aldeko festa. Getariako Elkano Kofradiaren laguntzaz.

16:30. II Pilota-Berdel topaketaren hasiera.

16:45. IV. Emakumeen txapelketa azkarraren hasiera. Kanporaketak.

18:00. Berdel eta sagardo dastaketa Berdura plazan Getariako Elkano kofradiakoen eta Behar Zana elkartearen eskutik.

18:30. Pilota-Berdel topaketaren amaiera.

18:45. Emakumeen txapelketa azkarraren finala.

21:00. Berdel-Sagardo dastaketaren amaiera.

TOLOSA

PAILAZO IKUSKIZUNA

17:00. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi Dantza* ikuskizuna, Leidorren.

IKASTAROA

09:15. Arri Studioak antolatuta argazki ikastaroa. Informazio gehiagorako: 688 865 934.

TXOTXONGILO TAILERRA

11:30. Formosako txotxongilo tailerra. Txotxongiloen antzerkiko pertsonaiei buruzko bideo laburra eta Taiwango txotxongiloen antzerki tradizional eta modernoaren tailaketaren, eraikuntzaren eta manipulazioaren sarrera interaktiboa. Parte hartzaile guztiek txotxongiloak erabiltzeko aukera izango dute. Jarduera amaitzeko, bisita gidatu labor bat egingo da erakusketara. Familia guztiarentzat zuzendurik. Doakoa. Topic-en.

KONTZENTRAZIOA

12:00. Tolosaldean ospitale publiko eskatzeko kontzentrazioa, Trianguloan TOPAK deituta.

AHOZ AHO

22:00. Carolina Rueda, Amaroazko auzo etxean.

KONTZERTUA

22:30. Syberia (Katalunia) eta

Neila taldeen kontzertua, Bonberen.

ZIZURKIL

M8

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko irteera, Oñati ezagutzeko aukera bertako emakumeen begietatik.

BLUES GAUA

13:00. Mojo Hand, Txindoki tabernan.

22:30. Saxos del Averno, Atxulondo tabernan.

00:00. The Sweet Vandals, Egarri tabernan.



TXAPEL EGUNA

16:00. Alex Inzari herri omenaldia Txapel Egunaren 27. urteurrenean.

16:00. Txapeldunen mus lehia zentroan.

17:30. Bukalai dantza taldearen emanaldia Intxaur frontoian.

20:00. Trikitilariekin eta Haritz Mujika eta Amaia Agirre bertsolariekin poteoa.

21:00. Txapeldunen afaria Iriarte jatetxean. Prezioa: 22 euro. Txartelak salgai Iriarten eta Egarrin.

IGANDEA MARTXOAK 15

ALTZO

MARTXO MOREA

Argazki Rallya. Gaia: Berdintasuna.

ANOETA

ANTZERKIA

18:00. *Beldur Txoua!* antzezlan, Katramila antzerki taldearekin.

Sarrera: 3 euro, Mikelasagastin.

IBARRA

ZINE EMANALDIA

18:00. *Ez eskerrik asko Gladysen lehioa* dokumentalaren emanaldia eta ondoren egileekin solasaldia.

TOLOSA

IRTEERA

07:30. Mendi irteera eta upeltegira bisita Alpino Uzturrek antolatuta. Peñalrayo, Obarenes eta Galbarruli mendiak igo eta ondoren Bohedal upeltegia bisitatu.

URAREN NAZIOARTEKO EGUNA

09:30. Espeleologia irteera, Mendikute kobazulora.

ST. PATRICK'S

18:00. Shane Curley & Azkaiter Pelox. Irish folk. 3 tabernan.

ASTELEHENA MARTXOAK 16

AMASA-VILLABONA

M8

19:00. Nerea Barjolaren hitzaldia, Subijana etxean.

ANOETA

SAIO IREKIA

17:00. *Sex-isiltasuna apurtzeko bideak*. Nerabeen sexualitatearen bidaikideak. Nerabeen gurasoentzat saio irekiak. Elene Jimenez sexologoak eskainita (Sexune taldea), Anoetako Herri Ikastolan.

AUDIZIOA

18:30. Loatzo musika eskolako audizioa: Biolina, Mikelasagasti auditorioan.

TOLOSA

KONTZENTRAZIOA

12:00. Tolosaldeko pentsionistak Tolosako udaletxea aurrean bilduko dira pentsio duinak eskatzeko.

ZINEMA



HASTA QUE LA BODA NOS

SEPARA

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (21:00).

Gurea aretoa, Amasa-Villabona.

Igandea (19:30 eta 22:00).

Leidor antzokia, Tolosa.



EL FARO

Larunbata (22:30) eta astelehena (20:30).

Leidor antzokia, Tolosa.



BAYALA, UNA AVENTURA

MAGICA

Igandea (17:00).

Leidor antzokia, Tolosa.



BONNIE BEARS. ABENTURA

HISTORIAURREAN

Igandea (17:00).

Gurea aretoa, Amasa-Villabona.

Etxe ondotik Bilbora, Ameztoi lagun

Vicente Ameztoren ibilbideari eta lanari buruzko berrikusketaren ber-tsio zabala ikus daiteke Bilboko Arte Ederren museoan egun hauetan. Etxe-Ondon bizi izan zen pintoreari eskainitako erakusketa ikusteko bisita gidatua antolatu du Amasa-Villabonako Udaleko Kultura sailak. Bihar 60 lagunetik gora izango dira Bilbon ekimenean parte hartzen.

Jon Miranda

Amasa-Villabonako Udalak 2012an inau-guratutako *Etxe Ondotik* erakusketa-ren inaugurazio ekitaldian Bernardo Atxagak esan zuen: «Harritu egiten naiz, oraindik Euskal Herrian, Bilboko Arte Ederren Museoan, nola ez zaion [Ameztoiri] erakusketa zabal bat egiten». Zortzi urte pasa behar izan dira idazle asteasuarraren hitzak egia bihurtzeko. Datorren ekainaren 7ra arte Vicente Ameztoren 53 margolan, hainbat collage, kartel eta marrazki biltzen dituen erakusketa izango da ikusgai, orain arte artistari eskaini zaion mostrarik osoena. Bihar, Amasa-Villabonako 66 lagunek ordu eta laurdeneko bisita gidatua egingo dute erakusketan.

Margolariaren heriotzaren 10. urteurrenaren harira antolatu zuten duela zortzi urte erakusketa Villabonako Gurea aretoan. Orduko udal ordezkariak Ameztoti herritar «aktibo» bezala gogoratu zuten, «parte hartzailea, eta batez ere, altruista. Beti zegoen herri-tarren ondoan eta herriaren alde egiteko prest».

Bere bizitzaren azkeneko 30 urte luzeak Villabonako Etxe-Ondon eman zituen Ameztotik eta bertan ondu zuen bere obraren zatirik garrantzitsuena, toki hori baitzuen, neurri batean, inspirazio iturri. 2012ko erakusketa Etxe-Ondotik bertatik eramandako

obren bilduma batekin osatu zuten eta artistak erabiltzen zituen teknika ezberdinak erakutsi zituzten Gurea aretoan. Urte hartan bertan, familiaren bultzadaz Ameztoren lanekin beste erakusketa bat zabaldu zuten Donostian. Aurrez ere eskaini izan zitzaizkion atzera begirako erakusketak, Donostiako Koldo Mitxelena (2000), Bastidako Remellurin (2000) eta Gasteizko Artiumen (2003), baina sekula ez zaio orain Bilbokoa bezain osorik antolatu. Arte Ederren Museokoa da haren ibilbide osoa kontuan hartzen saiatu den bakarra, 1968tik hasi eta 2001era arte.

Arte Ederren Museokoa da haren ibilbide osoa kontuan hartzen saiatu den bakarra, 1968tik hasi eta 2001era arte

Bilbora iritsi baino lehen, Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan egon dira ikusgai Ameztoren berrogei lan. Nahiz eta txikiagoa izan bilduma, artistaren lanak piztutako lilura nabarmendu dute Zirkuluko ardura-



BILBOKO ARTE EDERRETAKO MUSEOA

dunek. Erakusketak 10.000 bisitari izan ditu eta kritika positiboak jaso ditu.

Javier Viar arte historialari eta Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari izandakoak sustatu du ekainera arte ikusgai izango den erakusketa, Miriam Alzuri komisarioarekin batera. Bi argitalpen ere kalera-tu dituzte erakusketarekin batera. Katalogoa da bata, besteak beste, Joseba Sarrionandiaren testu bat, Viarren beste bat eta Alzurik prestatutako kronologia zehatza dakartzana. Bestea, berriz, liburua da, Viarrek berak Ameztoiri buruz idatzitakoa: *Vicente Ameztoi. La transfiguración melancólica* (Vicente Ameztoi. Antzaldatze malenkoniatsua). Gaztelania hutsean kaleratu dute eta artistaren ibilbideari, eraginei eta lanei buruzko lan mardula da.

Vicente Ameztoi 1946 - 2001

Aurreko belaunaldiko euskal artisten hizkuntza abstraktuaren parez pare, Vicente Ameztoik (Donostia, 1946 - Amasa-Villabona, 2001) aurreko mendeko 70eko hamarkadako euskal artea eraldatu zuen figurazioaren alde egin zuen, eta figurazio horri, subjektibotasunarekiko, misterioarekiko eta ironiarekiko zuen interesa gehitu zion. Aipatzeko da artistak zuen gaitasuna itxuraz arruntak ziren osagaiak, paisaia esaterako, osagai aztoratzaile bihurtzeko. Euskal Herriko kultura eta historia garaikidearen aipamenekin batera, Ameztoik hainbat erreferente erabili zituen. Erreferentzia horiek guztiak hartu eta estilo sofistikatuaren, teknika zehatzaren, bere interesen -ekologia, argazkilaritza edota zinema- eta bere gorabehera biografikoen galbahetik pasatzen zituen.

Bilboko Arte Ederren museoan 53 margolan jarri dituzte ikusgai. Horietako batzuk oso enblematikoak; esate baterako, bere azken lan garrantzitsua: Rodriguez Hernandorena familiaren enkarguz, Bastidako Remelluriko Amaren ermitarako 1994 eta 2001 artean egindako margolanen zikloa. Beste asko bilduma partikularretatik datoz, eta, batez ere, 1970 eta 1980ko harmarkadetan erositakoak direnez, orduz geroztik oso gutxitan ikusi ahal izan diren obrak dira. Bilboko Arte Ederren Museoaren bildumatik lau obra ikusi ahal dira: *Izenbururik gabe* (c. 1972), *Izenbururik gabe* [Juan Luis Goenagaren erretratua] (1976); *Izenbururik gabe* [Poxpolinak (Arias Navarro)] (1977); eta *Izenbururik gabe* [Ahoa] (1979).

Margolanez gain, paperean egindako hainbat obra ere badaude ikusgai Bilbon (marrazkiak, estanpak eta kartelak), baita askatasun osoz elkarganatutako objektuak biltzen dituzten collage-kutxa edo dokumentazioa, esterako, marrazki-koadernoak, liburuxkak eta liburuak. Ameztoiren obrari buruzko *Miradas* (1969) film laburra ere proiektatzen dute erakusketan.

«AITAK JORRATU ZITUEN GAIEK GAURKOTASUN HANDIA DUTE»

VIRGINIA AMEZTOI
VICENTE AMEZTOIREN ALABA

Ertz askotatik begiratu ahal zaio bere aitaren ibilbide artistikoari, eta bere ustez, alde guztiak hartzen ditu kontuan Bilboko erakusketak, «zentsurarik gabe».

J. M. Amasa-Villabona

Bihar, gainerako amasar eta billabonatarrekin batera eta aitaren obraren inguruko erakusketa bisitatzen Bilbon izango da Virginia Ameztoi (Villabona, 1972). Biharko hitzorduan parte hartzeko aukera ez dutenei ekainaren 7a baino lehen Arte Ederren Museora gerturatzeko gonbita luzatu die.

Pozik zaudete aitaren atzera begirako hau prestatu dutelako?

Guretzat oso momentu hunkigarria izaten ari da, alde guztietatik begiratuta. Aspaldi hasi zen proiektu bat da eta azkenean forma eman zaio. Oso-oso pozik gaude Bilbon ikusgai dagoena bilduma osatua delako eta jendeak aukera paregabea izango duelako orain aitaren obra gozatzeko eta ulertzeko.


Beranduegi datorrela esango zenuke?

Ez, ez zait iruditzen berandu datorrenik, alderantziz esango nuke, oso momentu egokia da erakusketa hau antolatzeko. Uste dut nire aitaren obrek denboraren joana oso ondo jasaten dutela eta izan daiteke aitak jorratu zituen gaiek gaurkotasun handia dutelako oraindik ere.

Amasa-Villabonako Udalak 'Etxe-Ondotik' erakusketa antolatu zuen 2012an. Nola gogoratzen duzu?

Izan zen erakusketa bat bertako herritarrei begirakoa. Aita hil zeneko 10. urteurrenaren harira, omenaldi gisara antolatzea proposatu ziguten eta prest agertu ginen bere obra jendearekin konpartitzeko. Aitaren izateko modua ere horrelakoxea baitzen, beti konpartitzen zituen bere kezka eta egonezinak jen-

dearekin. Gauza pertsonalagoak eraman genituen erakusketa horretara, erabiltzen zituen objektuak edota gustuko zituen musika taldeen kamisetak. Zerbait intimoagoa egin nahi izan genuen orduko hartan. Olio lan pare bat eta kaxekin, aldizkarien azalekin, karteekin eta horrelakoekin osatu genuen erakusketa.



Etxe-Ondo etxearekin zein harreman zuen zure aitak?

Etxea betidanik familiarena izan da. Oso etxe zaharra da. Nire aita Donostian jaio zen baina bisitan askotan etortzen zen hona. Pixkanaka konturatu zen ingurune honekin lotura handia zuela. Indartzen joan zen harreman hori eta 19-20 urterekin erabaki zuen hona etortzea. Amarekin etxean ezkondu zen, kapera bat ere badagoelako bertan eta ordutik hemen lekutu zuen estudioa. Bizi izan zen artean, gainera, herritarrentzat zabalik egoten zen beti atea. Gustatzen zitzaion jendearekin kontutan aritzea, arratsalde pasa. Gainera herritarrekin bazuen harremana, gaztetxera gerturatzen zen, adibidez, hangoei mural batekin laguntzera. Gustatzen zitzaion kalean egotea eta zer gertatzen ari zen jakitea.

Bilbokoa Vicente Ameztoiren obra osoa ulertzeko lagungarri den erakusketa bat dela uste duzu?

Bai. 53 olio dira eta erakusketan presentzia handia



eman diete oso lan indartsuak direlako. Gero obra grafikoa dago. 60ko hamarkadaren bukaeratik aurrerako lanak bildu dituzte eta horrek aitaren obraren bilakaera ulertzen laguntzen du. Arte lanetan sartu zituen elementu berriak ikusteko aukera dago obran. Oso aukeraketa ona egin dute: obra grafikoak, paperezko lanak, marrazkiak... Eta garrantzitsuena da bere alde guztiak ikusteko aukera ematen duela erakusketak, badaudelako paisaiak baina baita esanahi politikoa duten obrak ere. Zentsurarik gabeko erakusketa da. Oso ondo geratu da.

Erakusketan ikusgai diren obra batzuk Bilboko Arte Ederren Museoaren jabetzakoak dira baina badira bilduma pribatuetatik eramandakoak ere.

Bai. 60. hamarkada bukaeran Madrilén erakusketa bat antolatu zuen aitak eta 70.ean beste bat, oso garrantzitsua. Obra dezente saldu zituen orduan, garai horretan asko ekoizten baitzuen. Hurrengo urteetan bere lana aldatzen joan zen, arte zirkuitutik ateratzea erabaki zuen, konturatu baitzen ezin zituela bete eskatzen zizkioten baldintzak eta epeak. Orduan beste modu batera lanean hasi zen, enkarguz, eta horrela eman zituen hurrengo urteak. Hil artean, hori bai, beti lanean aritu zen. Artelekurekin, esate baterako, harreman handia izan zuen eta katalogo garrantzitsua egin zuen, *Karne&Klorofila* izenarekin. Batez ere obra grafikoa landu zuen, besteak beste, duela gutxi hil den Don Herbert litografoaren tailerrean.

Zure aita artista ezaguna zen Euskal Herrian. Hemendik kanpora ere bere obra ezagutzen dutela uste duzu?

Orain, Bilboko Arte Ederren Museoan ikusgai den erakusketaren zati bat, 40 obra, Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan egon da ikusgai urte hasieran. Erakusketarako prestatu duten katalogo ederrak lagunduko du aitaren lana ezagutarazten. Nik uste bazituela bere jarraitzaileak, baina beste jende askok ez zuela ezagutzen. Horregatik diot momentu aparta dela ezagutzen ez zutenek aitaren obra goza eta ezagutu dezaten.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGURALDIA

OSTIRALA

Hobera egingo du eguraldiak. Eguerdi aldera bi-tarte oraindik zerua nahiko estalirik egongo da eta euri txikia egingo du. Ondoren, atertu eta ostartetxo batzuk zabalduko zaizkigu. Haizeak iparretik joko du eta termometroek koskatxo polita behera egingo dute, tenperatura balio altuenak 11-13 gradutan geratuz.

LARUNBATA


Giro eguzkitsua eta sana. Goizeko hodei hondarrak desegin ostean, eguerditik aurrera eta, batez ere, arratsaldean giro oskarbi eta eguzkitsua geratuko zaigu. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, ahul eta termometroak zertxobait igoko dira, tenperatura balio altuenak 14-15 gradutan errendituz eguneko erdiko orduetan.

IGANDEA

Giroa erabat nahastuko zaigu. Goizean giro lasaia izango da, haizea aldakor ibiliko delarik eta zeruan hodei gutxi ikusiko ditugularik. Gainera termometroak goraxeago kokatuko dira eta tenperatura balio altuenak 15-17 gradutan errendituko dira. Arratsalde hasieran haizeak mende baldera egin, zakartu eta eguraldiak okerrera egingo du. Fronte batek euri zaparrada mardulak utziko dizkigu, baztertu gabe egun amaieran ekaitz kutsukoak izatea. Egun amaierarako termometroek nabarmen behera egin eta elur-maila 1.000 metrotara edo beherago jaitsiko zaigu.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK

Hamarkada aldaketarekin, arau berriak: maketa diseinatzaileak gainbegiratzea ezinbestekoa da eta kontuz zuen tonu berdinean hizketan hasten banaiz...

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

MARTXOAK 13, OSTIRALA

AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

MARTXOAK 14, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Isidoro Santamaria Marijuan.
Nafarra etorbidea, 2. 943 65 46 10.

MARTXOAK 15, IGANDEA

AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

MARTXOAK 16, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Larramendi, 6-behea 1.
943 67 51 18.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO

FARMAZIA: TOLOSA.

LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

Audi Enpresan
ISURTZERIK GABEKO
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN.

ARRASTORIK EZ
UZTEKO BERRITU
DUGU.

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi Q5 TFSIe berria

Ahalegin handia egiten dugu zero isurtze izango duen etorkizuna eraikitzeko. Berrikuntzen alde egiten dugu Audi TFSIe teknologiarik eta entxufagarria den Audi teknologia hibridoari esker, azken horrek gasolina motorra eta integratutako motor elektrikoa konbinatzen dituelarik. 40 kilometro baino gehiagoko autonomia elektrikoa duenez, gidatzeko modu eraginkor eta arduratsua eskaintzen du.

Audi TFSIe teknologia ondorengo modeloetan egongo da:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 SIE.

audi.es/tfsie



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi Q5 TFSIe: 220 kW (299 CV)-tik 270 kW (8367 cv)-ra. CO2 isurtze konbinatuak: 50-64 g/km (NEDC: 46-54 g/km). Kontsumo konbinatua: 17,5-20,3 kWh/100 km.